

NORBERT TAUER (1899-1983)

Urtarrilaren 28an bere gaixotasunaren berri txarra Euskaltzaindiaren batzarraren ematen nuen bitartean hil zen Pragan Norbert Tauer, euskaltzale oso ezaguna. Lau hilabete aurretik izana nintzaion bere etxean ikusten. Ordurako oso nekez zebilen aulki bati harrapatu bere emaztearen laguntzarekin. 84 urte zituen.

Bere sorterriaz hau zioen 1956-an *Egan*-en idatzitako lan batean: “Nere familiarako sehaska aitaren aldetik Bohemia sartaldeko mugaldeen datza. Bavierako mugan zabaltzen den eskualde menditsu honek “Chodsko” du izena... Eskualde honen erdian Klenci izeneko herri eder bat dago; han errota zahar batean nere arbasoak XVI. mendetik aurrera bizi ziren”. Pilsen izeneko garagardo onagatik ezaguna da lurralde hori.

Berrogei urtez (1918-1948) Pragako Ministeritzan eta gero Udaletxeko diplomatiko zerbitzuetako eginkizunetan ibili zen. Hori dela eta, hamar urtez Madrilen egon zen (1927-1937) Enbaxadako canceller bezala. Etorri bezain laster ikasi zuen euskara Arturo Canpion zenaren gramatikaz baliaturik.

1955ean euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzindiak, eta azken aldi honetan ohorezko mailan genuen. Era berean, Buenos Airesko “Euskaltzaleak” elkargoan ohorezko lagun, eta “Instituto Americano de Estudios Vascos” delakoan bazkide zen.

Euskal idazle bezala aipamena merezi du. Bere paper eta aldizkari zaharren ataletan, Donostiako *Argian* agertutako idazlana aurkitu nuen. 1928.eko urriaren 28an, “Txekoslovakia” izenburuarekin bere herriak egun horretan betetzen zuen askatasunaren Hamar-urteburuaz idatzi zuen. Estalki zurian sarturik, honela dio azalean: “Nire lehengo euskerazko artikulua”. 1935.ean, *Prehled* aldizkari katolikoak euskarari buruz ale bat atera zuen eta Tauer-ek badu bertan idazlan bat. “Baskové” izeneko lana “*Norodnostni obzor*” aldizkarian agertu zuen. Azken lan hauek ere jaso nituen.

Euskal Herriari dagokionez, *Zeruko Argia*, *Euzko Gogoia*, *Egan*, *El Bidasoa*, *Olerti*, *Euzko Deya* eta beste askotan agertu izan da bere izena. Mexiko hiriburuko Euskal Etxeak “Euskeraren pizkundea” izeneko lana saritu zion.

Milaka gutun idatzi zuen, beste alde, eta hau izan daiteke bere euskaltzaletasunaren ikuspegirik zabalduena. Sei urtez (1955-1960) beste horrenbeste sari irabazi zituen Buenos Airesko “Euskaltzaleak” sortutako euskarazko gutun idazleen leihaketa horietan. *Bere Idazkiak* izeneko liburuska batean biltzen dira zenbait eskutitz. Une horretan eta gero ere, zenbatu egiten zituen, bana-banaka, bere gutun guziak. Neuk ere baditut seirehun bat gutun bilduak, eta lehenengoak honela zioen 1957-an: “Idazlea naiz. Idazki hau 449 garrena da”. Hamalau urtez jarraitu zuen horrela, eta



Norbert Tauer. 1936.ean Madrilén zegoelarik.

2.680-ra iristean, 1971.urtean, utzi zuen nere eskutitzak kondatzez. Geroztik eskuz idatzi izan dit.

Gutunlariak erantzun jakingarriak hartu ohi ditu beste alde, eta Norbert Tauer euskaltzaleak zuen bilduma altxorra da guretzat. Ez ditut hemen aipatuko aurkitu ditudan gauzak. Dakizuenez, Euskaltzaindiarentzat utzi ditu denak, hala nola bere liburuak.

Txekez egindako euskararen gramatika, eta euskal esaera eta atsotitz zerrenda luzea bere hizkuntzaraturik ikusi nuen eskuarteko lanen artean.

Idazkietan agertzen zuen euskaltzaletasuna bihotzetik zerion. Bere aberria izan balu bezala maite zuen Euskal Herria. “Geure sorterriari hainbat amodio damakio zuenari”, esan zidan gero kalean gu bion lagun batek. Eta beste ohar hau: “Nik ez dakit zergatik atsegin zaigun txekoei Euskal Herria. Geurearen antzera zapal dutako herri txikia delako edo?”.

Maitale sutsu eta akuilari aspergaitza galdu du Tauer jaunarekin euskarak, eta atzerriko adiskide leiala euskaldunok.

J. M. Satrustegi